

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana Leioan

2013 - 2016

2013ko iraila

1	Planaren ikuspegia	3
2	Esparru teorikoa eta esparru legala	5
3	III. Planaren ezaugarri eta helburuak	12
4	Berdintasun diagnostikoan batutako hobekuntza arloak	13

5	Ekintza plana	17
6	III. Planaren kudeaketa	38
	6.1. Koordinazioa eta antolaketa	38
	6.2. Ebaluazioa	41
	6.3. Baliabideak	41
	6.4. Ebaluazio tresnak	42
7	Koordinazio organigrama	45
8	Kronograma	46

Aurkibidea

1. Planaren ikuspegia

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Leioako III. Planak, erreferentzia modura, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako EAeko V. Plana dauka.

Emakume eta gizonen arteko gobernantza

Kontzeptu horrek suposatzen du genero zeharkakotasuna egikaritzeko oinarrizko aspektuak batzea suposatzen du, otsailaren 18ko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legea bete eta garatzeko.

Legeak, bere printzipio orokorren artean, barne hartzen du genero ikuspegia integratzea botere publikoek aurrera ateratzen dituzten politika eta ekintza guztietan, desberdintasunak ezabatzeko eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko (3. artikulua).

Legearen ondorioei begira, honako hau esan nahi du: *«Emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan aintzat hartzea, eta politika eta jarduera guztietan, maila guztietan eta haien plangintza, egikaritze eta ebaluazio fase guztietan, desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta ekintza zehatzak gauzatzea»*

Emakumeen ahalduntze eta balioak aldatzea

Esku hartzen ildo honek pertsonak bere bizitzari eragiten dioten baliabide eta erabakiei buruzko autoritatea eta boterea areagotzea dakar. Emakumeak, banaka eta talde gisa, euren egoeraren jabe egitearekin dago lotuta, horrela areagotu egingo dutelako erabakiak hartzeko prozesuetan duten parte-hartzea, bai eta boterea erabiltzeko eta eragina izateko ahalmena ere.

Antolaketa sozial erantzukidea

Antolaketa sozial erantzukidea bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratzea da, hiru neurriren bidez: etxeko lanetan gizonen erantzukidetasuna sustatzea, enpleguaren egiturak bizitza pertsonalaren eta familiakoaren beharretara egokitzea, eta azkenik, zerbitzu soziokomunitarioak egokitzea.

Emakumeen aurkako indarkeria

Ildo estrategiko honen bidez epe laburrean aritu nahi da, biktimak babesteko eta haiei osoko arreta eskaintzeko neurriak eta baliabideak sortuz. Gainera, emakumeen aurkako indarkeria gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunaren ondorio dela erakusten duten sentsibilizazio eta prebentzio ekintzek lehentasuna dute hura erabat desagerrarazteko bidean.

2. Esparru teorikoa eta esparru legala

Azken urteotan, nazioartean, Europan, Estatuan, Erkidegoan... lege eta arau juridiko asko onartu dira Emakume eta Gizonen Aukera Berdintasuna beren-beregi onartzea helburuarekin. Araudi horiek Berdintasun Plan honen babes instituzional eta legal zabala dira.

Jarraian, genero politiken sare teoriko-legalaren lorpen batzuk azpimarratzen dira:

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena (03/12/21ean eguneratua).
- Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana.
- 3/2007 Lege Organikoa (4), martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen artean Benetako Berdintasuna lortzekoa.
- Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako.

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoa (03/12/21ean eguneratua)
Legeko 28. artikuluan esaten da udalerriei gaikuntza ematen zaiela beste administrazio batzuen berezko jarduerak osatzeko jarduerak egiteko, bereziki, hezkuntza, kultura, emakumeen sustapen, etxebizitza, osasun, eta ingurugiroaren babesari dagozkionak. Testuinguru horretan, garbia da Toki Administrazioaren protagonismoa, eta udalerriei esku hartze espazioa uzten die ekintzak sustatzeko, edo genero esparruan, herritarren behar eta nahiak asetzeko zerbitzu publikoak eskaintzeko, trabarik edo kalterik eragin gabe beste Administrazio Publiko batzuen eskumenei.

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako EAEn

Aipatu Legeko markoan, garbi definitzen dira Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun alorrean, administrazio maila bakoitzari dagozkion funtzioak, arau hauetatik eratortzen diren eskumenetatik abiatuta: Autonomia Estatutuko 10.39 artikulua; Lurralde Historikoen Legeko 6 eta 7 c) 2 artikulua; arau estatutarioak (9.2 art.); eta arau komunitarioak (Europar Batasunaren Ituneko 3.02 art.). Horiek, botere publiko guztiei ezartzen diete gizon eta emakumeen berdintasuna erreala izateko baldintzak sustatu eta oztopoak ezabatze beharra, baita berdintasun hori politika eta ekintza guztietan sustatzeko obligazioa ere.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak funtzio hauek ematen dizkio Toki Administrazioari:

- Generi ikuspegia integartzeko egiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea.
- Ekintza positiboko neurriak betearaztea.

- Programaketa, Jaurlaritzaren Plangintza Orokor eta Foru Aldundien planifikazioaren markoan.
- Emakume eta gizonen arteko desberdintasun egoera ezagutzea ahalbidetzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak abian jartzeko estatistika eguneratuak egokitu eta mantentzea.
- Udalerriko gizon eta emakumeen egoerari buruzko ikerketak eta azterketak egitea.
- Emakume eta gizonen arteko desberdintasun egoera eta berdintasuna sustatzeko neurriei buruzko sentsibilizazio ekintzak burutzea.
- Toki araudiaren jarraipena eta aplikazioa, emakume eta gizonen arteko berdintasun printzipioarekin ados.
- Herritarrak informatzea eta orientatzea, bereziki emakumeak, emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko programez, eta askotariko bazterkeria pairatzen duten emakumeen oinarrizko gizarte eskubideak bermatzeko diren programa edo zerbitzuez.
- Askotariko bazterkeria pairatzen duten emakumeen oinarrizko gizarte eskubideak bermatzeko diren programa edo zerbitzuak ematea, euren izaera dela-eta udalerrian eman behar direnak.
- Bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, euren izaera dela-eta udalerrian eman behar direnak.
- Euren helburu edo funtzioen arabera, udalerrian, emakume eta gizonen arteko berdintasunean laguntzen duten entitate publiko eta pribatuekin lankidetzak eta parte hartze bideak ezartzea.
- Sexuagatiko bazterkeria egoerak detektatzea udalerrian eta horiek ezabatzeko neurriak hartzea.
- Euren eskumenen barruan, eska dakiekeen beste edozein funtzio.

Legear, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren diseinu eta egituraren gaineko lau oinarrizko funtzio ezartzen dira:

- Plana betearazteko, botere publikoen jarduketa arautu behar duten oinarrizko printzipioak ezartzeko funtzioa (Legearen Aurreko Titulua).
- Neurriak arautzea genero ikuspegia integratzeko botere publikoen eta euskal administrazio publikoen jarduketan (I. eta II. Tituluak).
- Esku hartzearen arlo desberdinetan berdintasuna sustatzeko neurrien funtzio egituratzailea (III. Titulua)).
- Santzioak arautzea (IV. Titulua).

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planak frogatzen du Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, oinarritzko aurrerapena dela berdintasun politiketarako, berdintasunaren printzipioa –printzipio juridiko unibertsala- arauz garatzen baitu, berdintasuna eta aukera berdintasuna, biak, Euskal Administrazio Publikoaren jarduketan, eta beren kasuan, entitate pribatuenean.

3/2007 Lege Organikoa (4), martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen artean Benetako Berdintasuna lortzekoa

2007ko martxoaren 23an BOEn argitaratutako Legea, alde batetik, abiatzen da premisa honetatik: *“printzipio juridiko unibertsala, giza eskubideen gaineko zenbait nazioarteko testutan hala aitortua; eta bestalde, Legearen aurreko berdintasun formala aitortzea oinarritzko aspektua dela, arauketa bidez hobetu beharrekoa, “oraindik existitzen diren sexu arrazoientzako bazterkeriaren, zuzena edo ez zuzena, adierazpenen kontra borrokatzeari begira, eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko, hura lortzeko oztopo eta estereotipo sozialak enkaitzen”.*

Oinarri hartzen dituen funtsezko printzipioak hauek dira, beste batzuen artean: “Ekintza positiboa”, “Ordezkaritza orekatua” eta “Zeharkakotasuna”.

21.1 artikulua hau dio: *“toki entitateek berdintasun eskubidea barneratuko dute euren eskumenak erabiltzean eta horretarako lan egingo dute gainerako Administrazio Publikoekin batera”.* Horrela, 3/2007 Legeak Toki Administrazioen eskumenak ditu hizpide, apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak, orokorrean, ematen dituenak, eta EAEko udalerrien kasurako, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legeak, otsailaren 18koa, zehaztutakoak.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokiak Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako

Europako Gutuna, Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerakoa, Europako Udallerri eta Eskualdeen Kontseiluak sustatua Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako V. Jarduera Komunitarioko Programaren markoan, *“Europako tokiko eta eskualdeko gobernuei zuzenduta dago, sinatzera gonbidatuz, baita emakume eta gizonen arteko berdintasun printzipioaren gaineko jarrera publikoa hartzerare, Gutunak definitzen dituen konpromisoak beren eremuan aplikatu dituzaten”.*

EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarte) proiektuaren bazkidetarikoa bat da, eta gero eta gehiago dira Gutuna sinatu duten euskal udalak. Gutun horri atxiki diren udalek, bi urtetan, berdintasunerako jarduera plana landu eta inplementatzeko konpromisoa hartzen dute. Plan hori prozesu parte hartzaile baten bidez diseinatu beharra dago, ebaluazio irizpide jakin batzuen menpe egon behar du, eta inplementatzeko baliabide nahiko izan behar ditu. Gainera, Udalek baliabide nahiko izan behar dute plana abian jartzeko. Europako Gutunak honela definitzen ditu tokiko eta eskualdeko autoritateak: *“esku hartzerako mailarik egokienak desberdintasunen eta horiek hazteren aurka jarduteko, baita benetako berdintasunezko gizartea sustatzeko ere”.*

Arau horiek jarraian definitzen diren Berdintasunerako Printzipioetan dute oinarria:

(Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Euskal Legea)

1. - TRATU BERDINTASUNA. Pertsonen sexuan oinarritutako ezerein bazterkeria, zuzena edo zeharkakoa, debekatuta geratzen da, baita horretarako erabiltzen den edozein forma ere.

Lege horren ondoreetarako:

a) Zuzeneko bereizkeria dago pertsona bat sexuaren zioz edo sexuarekin zuzenean loturik dauden ingurua barrak direla-eta -haurdun egonda edo ama izanda, esaterako- beste pertsona bat baino modu txarragoan tratatzen denean. Delitu gisa izan dezakeen tipifikazioa ahaztu gabe, laneko sexu-jazarpena sexuaren ziozko zuzeneko bereizkeriatzat jotzen da.

b) Zeharkako bereizkeria dago egintza juridiko, irizpide edo eginera batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago bati kalteak eragiten dizkionean, salbu eta egintza juridiko, irizpide edo eginera hori egokia eta beharrezkoa denean, eta sexuarekin loturik ez dauden irizpide objektiboak erabilia justifikatzeko modukoa denean.

Euskal aginte publikoek ezin izango dute inolako diru-laguntza edo laguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duen edonolako jardueratarako. Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta administrazio-zehapena edo zigor penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak ere egoera berean geratuko dira, dena delako zehapen edo zigorrak dirauen denboran.

Euskal herri-aginteek bermatu behar dute ezen bereizkeria-egoerak eragin ditzaketan beste inguruabar batzuk ere tartean direla-eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek nahiz emakume-taldeek benetan baliatzen dituztela beren oinarrizko eskubideak. Inguruabarrok honako hauek izan daitezke: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional baten kide izatea, ondarea, jaioterria, ezintasuna, adina, sexu-joera, edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial.

2. - AUKERA BERDINTASUNA. Euskal herri-aginteek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitortu lekizkiekeen gainerako oinarrizko eskubideak, aukera berdinekin baliatzen dituztela bermatzeko, boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea barne. Lege honen ondoreetarako, aukera-berdintasunaz ari garela, zera esan nahi da: agintea eta baliabide eta onura sozial eta ekonomikoak eskuratzeko abiagune edo hasierako baldintzak ez ezik, horiek guztiak gauzatzeko eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzez ere ari garela.

Era berean, euskal herri-agintek bermatu egin beharko dute ez dela oztoporik egongo lege honetan aipatzen diren eskubideak gauzatzeko eta arautzen diren baliabideak eskuratzeko; izan ere, abenduaren 4ko 20/1997 Legean oztopo horiek bertan behera uztea zehazten baita (Irisgarritasuna Sustatzen du lege horrek).

3. - ANIZTASUNA ETA EZBERDINTASUNA ERRESPETATZEA. Herri-agintek beharrezko diren neurri guztiak abiarazi behar dituzte sexuen berdintasunerako prozesuan errespetatu daitezkeen bai gizonen eta emakumeen artean biologiari, bizi-baldintzei, jomugei eta beharrizanei dagozkienez dauden ezberdintasunak eta aniztasuna, bai emakumeen eta gizonen kolektiboen euren barruan dauden ezberdintasunak eta aniztasuna ere.

4. - GENERO IKUSPEGIAREN INTEGRAZIOA. Euskal herri-agintek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.

Lege honen ondoreetarako, honakoa da genero-ikuspegiaren integrazioa: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea.

5. - EKINTZA POSITIBOA. Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzea sustatze aldera, herri-agintek denboran ondo mugatutako berariazko neurri zehatzak abiarazi behar dituzte, bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren egitatezko ezberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko.

6. - SEXUAREN ARABERAKO ROLAK ETA ESTEREOTIPOAK DESAGERRARAZTEA. Euskal aginte publikoek, inola ere, sexuaren araberako rol sozial eta estereotipo batzuk desagerraraztea sustatu behar dute, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren oinarri baitira eta horien arabera emakumeei etxeko eremuaren ardura eta gizonei eremu publikoaren ardura izendatzen baitzaizkie, eta hori, gainera, balorazio eta aitortpen ekonomiko eta sozial oso ezberdina eginez.

7. - ORDEZKARITZA OREKATUA. Euskal aginte publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lor dadin erabakiak hartzeko eremu guztietan. Lege honen

ondoreetarako, pertsona anitzeko administrazio-organoetan ordezkariak orekatuz, hain zuzen, sexu biek %40ko ordezkariak, gutxienez, dutenean joko da.

3. III. Planaren ezaugarriak eta helburuak

Plan honen helburu orokorra da genero ikuspegia barneratzea udal kudeaketan tokiko berdintasun politikak abian jartzeko, berdintasun normatibotik harago doazenak eta xede gisa aukera eta emaitzen benetako berdintasun efektiboa bermatzea erronka daukatenak. Ezaugarriak honako hauek dira:

- Lau urteko indarraldia du, hau da, 2013-2016 epealdirako diseinatuta dago.
- Modu parte hartzailean landu da, aurretik egindako diagnostikoaren, datu eguneraketaren eta lehenagoko Planaren ebaluazioaren arabera. Horretarako, udal langileen eta udalerriko eragile sozialen inplikazio aktiboa egon da.
- Berdintasun Arloa da Plana koordinatu eta sustatzeko arduradun.
- Plan ireki eta malgua da, urtean urteko plan operatiboak definitzeke daudela.
- Plan ebaluagarria da, eta erdietsitako helburuak neurtzen joateko aldagaiak definitzen ditu.
- Aurreikusitako epealdian eta eskura dauden baliabideekin, Udal Atal guztiek eta Entitate arduradunek garatzeko helburu eta ekintza bideragarriak barne hartzen ditu.
- Udalerritari eragiten dion lan tresna da, konpromiso tekniko eta politikoa eskatzen duena, baita herritarrena ere.

4. Berdintasun diagnostikoan batutako hobekuntza arloak

Jarraian, diagnostikoan antzemandako hobekuntza proposamen nagusiak aurkezten dira, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planak aurkezten dituen printzipio eta interbentzio ildoekin lotuak.

- ✓ EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA.
- ✓ AHALDUNTZEA ETA BALIOAK ALDATZEA.
- ✓ ANTOLAKETA SOZIAL ERANTZUKIDEA.
- ✓ EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA.

- Arlo guztien inplikazioa lortzea genero mainstreaminga aplikatzean.
- Atalek aurrekontu erreserba egitea genero ikuspegia duten aktibitateak sustatzeko.
- Gobernantza indartzea Berdintasunaren gaian (sustatze eta koordinatze egiturak, prestakuntza plana, kontziliazio politika, genero ikuspegiko arauak garatzea...)
- Planaren ebaluazio jarraituaren prozesuarekin jarraitzea.
- Genero berdintasunean prestakuntza ematen eta sentsibilizatzen jarraitzea.
- Genero ikuspegia praktikan jartzeko tresnak ematea.
- Sortzen diren beharrianak berdintasun teknikariarekin kontrastatzea. Arloen arteko lan koordinatua.
- Berdintasuna sustatzeko arloa edukitzen jarraitzea.
- Eragile desberdinek parte hartzeko moduko partaidetza foroa abian jartzea. Informazioa eta materialak partekatzea.
- Eragile ezberdinen artean koordinatutako aktibitateak antolatzea, kanpainak egonkortzea...

EMAKUMEAK AHALDUNTZEA ETA BALIOAK ALDATZEA

- Ezgaitasuna (intelektuala/fisikoa) duten emakumeak ahalduntzea. Lan egitea gurasoekin.
- Emakumeak ahalduntzea aniztasun guztiak barne hartuz.
- Emakume jagoleak ahalduntzea, moralaren eta jagoteko beharraren kontzeptuak landuz.
- Andrak Emakume Elkartearekin dagoen kolaborazio hitzarmenarekin jarraitzea.
- Hauek bezalako programak sustatzea: “Ikasi ezetz esaten errudun sentitu barik”, “emakume, egin apustu zure alde”. Emakume heldu, gazte eta umeekin lan egitea. Ahalduntze eskola.
- Gizonak sentibilizatzea erantzukidetasunaren onuren gainean. Hala egiten duten gizonak ikusaraztea eta gizarterako eredu gisa aurkeztea.
- Emakumeen kirol klubetan ekintza positiboak sustatzea.
- Udallerri batzuen artean, estrategiak abian jartzea emakumeen kirol taldeak lortzeko.
- Emakumeen kirol taldeei diru-laguntzak ematea (emakumeen areto futbola...).
- Erakundeen laguntza emakumeen taldeentzat (adibidez, txapelketetan udalaren ordezkariak egotea, etab.).
- Emakumeen kirol taldeei publizitate gehiago egitea.
- Beharrezkoa da emakumeen kirola nabarmentzea, balioa ematea. Ad. emakumeen waterpoloak. *Jendeak sinetsi egiten du bere burua inportante ikusten duenean.*
- Kirola praktikatzeko zer dakarren informatzea gurasoei. Familiak paper garrantzitsua dute aholku ematen dutelako eta euren seme-alaben kirola eskolaz kanpoko bezala ikusten dutelako, inplikazioaz oso ziur egon gabe.
- Lan teknikoetan eta zuzendaritza lanetan, emakumeak izatea erreferentziazko figurak.
- Emakume entrenatzaileen ereduak sustatzea.
- Ibilaldiak, txapelketak, kirol aktibitateak... antolatzea berdintasunaren alde.
- Kirolean, talde aktibitate gehiago sustatzea.
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako kirol aktibitate bereziak antolatzea.
- Udalak ikuskizunen promozioan laguntzea, herritarrak kirol ekitaldietara joan daitezen eta ezagut ditzaten (kartel argidunak, kartelak, buletinak edo sare sozialak erabiliz).
- Hitzarmenak ezartzea Udala eta eliteko kirol klubetan artean (ad. Ath. Bilbao) emakume kirolariak nabarmentzeko eta haiei laguntzeko.
- Gizon zein emakumeentzako kirol aniztasuna sustatzea eta horretaz informatzea.

- Bokazio orientazio ez sexista bultzatzea. Tutoretza ekintzetan, materialen berrikuspenean, azpimarratu ez dagoela mugarik norberak zer izan nahi duen izateko.
- Oinarrizko gizarte zerbitzuak: gizonak sartzea, protokoloetan gizonak barneratzea, aipatzea...: profesionalak heztea sexuaren araberako emozio-sufrimenduaren adierazleak ezagutzeko.
- Drogamenpekotasuneko tailerretan, genero ikuspegia sartzea. Emakumeek aipatu egiten dute gainerako pertsonak egiten, kontsumitzen... dutena; emakumeek gainerako ikaskideen akusazioak pairatzen dituzte.
- Patioa hezkuntza zentroetan: patioaren erabilera kontrolatzea, marrak ezabatzea...
- Eredu berriak: debekatu eta arautu beharrean, alternatiba estrategikoak bilatuko beharko lirateke, egokiak, gizarteak onartzen dituenak, barneraino sartzen direnak...
- Irakasleen artean, emozio-hezkuntza sustatzea.
- Ikasleei buruz hitz egiteko espazioak sustatzea (institutuak).
- Familiak konprometitu arlo akademikoan eta ez-akademikoan. Familiei informazioa, gidak, genero berdintasunari buruzko tresnak.
- Hezkidetzak aktibitateak sustatzen jarraitzea hezkuntza zentroetan, zentroi hartzeko alternatibak bilatuz eta hezkuntza atalak edukia handitzea.
- Sexista ez den informazio ereduak zabaltzea (jostailuak, jolasak, ipuinak, liburuak, filmak...).
- Hezkuntzako eragile desberdinen artean sareko lana egitea adibideak eta praktika onak partekatzeko.
- “Ziberjazarpena” prebenitzeko prestakuntza antolatzen jarraitzea, genero ikuspegia sartuz.
- Umeen kirol aktibitatei jarraipena egitea espazioa hobeto antolatzeko eta kirol praktika zaintzeko.
- Emakumeen lan baldintzak hobetzen jarraitzea honako esparru hauetan: tradizioz gizonenak izan diren lanpostuetan emakumeen kualifikazioaren aldeko apustua egitea; emakumeak profesionalizatzea ezkutuko ekonomiatik atera daitezkeen.

GIZARTE ANTOLAKETA ERANTZUKIDEA

- Enpresak kontzientziatzea kontziliazio politikak barneratzeko beharrez lan-giroa hobetzeko, baita produktibitatea eta lehiakortasuna ere. Enpresa horiekin konpromisoak lortzea.
- Zainketaren onurez sensibilizatzea herritarrak, balioa emateari begira.
- Enpresetan zainketarako baliabideak (haurreskolak) har dezaten sustatzea; ad. EHU.

- Familia-habien ekimena aztertu eta sustatzea, Behargintzarekin batera, emakume langabeen enplegu nitxo bezala.
- Zainketa eta solidaritate sareak sustatzea emakumeen enplegarritasuna hobetzeko.
- Erantzukidetasun tailerrak ikastetxeetako gurasoekin.
- Lana kirol klubekin: entrenamenduak egokitu, ordutegiak...; kontziliazioa ahalbidetzeko.
- Ordutegien malgutasuna sustatzea kirol esparruan.
- Kontziliaziorako neurriak eta baliabideak sustatzea.
- Udalerriko ekipamendu eta baliabideek (kirol eta kultur instalazioak, parkeak...) kontziliazioa errazten duten ikustea.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

- Indarkeriaren Biktima diren Emakumeei arreta emateko Protokolo Mahaian egiten ari diren lanarekin jarraitzea.
- Genero indarkeria kasu baten aurrean, zer egin edo zelan aholkatu jakiteko beharra adierazten dute Hezkuntza zentroek.
- Udala Tratu Onen Tailerrak sustatzen jarraitzea.
- Azaroren 25eko kanpainetan lanean jarraitzea.
- Merkatariak genero indarkeria prebenitzeko programetan inplikatzeko jarraitzea.
- Etorkizuneko hirigintza planifikazioari dagokionez, Udalak jarrai dezala detektatutako puntu ez-segurua hobetzen eta horiek herritarrei jakinaraztea.

5. Jarduera Plana

Atal honetan, garatu egingo dira 2013-2016 epealdian landuko diren xedeak eta ekintzak, III. Plan honen Atalekin bat.

Helburuek definitu egiten dute aldatu egin nahi den gizarte errealitatea, eta lehenesten dute egin zehaztu beharrekoa, baita zehaztu ere proposatutako adierazleen eta ondorengo ebaluazioen bitartez.

III. Plan honetan helburuak markatuko dira atal bakoitzerako. Halaber, horien barruan, aurrera eramán beharreko ekintzak sartuko dira, EAEko V. Berdintasunerako Planak zehaztutako esparruetan.

JARDUERA EREMUAK	HELBURUA K	EKINTZA K
EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA	7	27
EMAKUMEAK AHALDUNTZEA ETA BALIOAK ALDATZEA	8	30
ANTOLAKETA SOZIAL ERANTZUKIDEA	2	10
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA	4	10
GUZTIRA	21	77

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gobernantza

G.1. Helburua: berdintasun politikak koordinatzeko egiturak sortzea sustatzea.

1. ekintza: sektorekako lan-mahaiak sortzea udal atalen artean, ekintza programa konkretuen aurrean.

Noiz: Plana indarrean dagoen bitartean.

Nork: Alkatetza eta beste atal batzuk.

Betetze maila jakiteko adierazlea: Lan-mahaiak existitzea eta abian jartzea (bai/ez).

2. ekintza: herritarrek parte hartzeko egitura sortzea (Berdintasunerako Mahaia).

Noiz: 2014.

Nork: Berdintasun Arloa

Betetze maila jakiteko adierazlea: Berdintasunerako Mahaia existitzea (bai/ez).

3. ekintza: erakundeen arteko koordinazio egituretan parte hartzen jarraitzea, hala nola Berdinsarea.

Noiz: Plana indarrean dagoen bitartean.

Nork: Berdintasun Arloa

Betetze maila jakiteko adierazlea: Leioako Udalak erakundeen arteko zenbat koordinazio egituretan parte hartzen duen.

4. ekintza: Berdintasun Planeko Urteko Programa Operatiboak egitea.

Noiz: urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, Plana indarrean dagoen bitartean.

Nork: Berdintasun Arloa

Betetze maila jakiteko adierazlea: Plan Operatiboa eginda (bai/ez).

G.2. Helburua: berdintasun politiken etengabeko ebaluazioa sustatzea.

1. ekintza: Berdintasun Planaren etengabeko ebaluazioa egitea.

Noiz: urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, Plana indarrean dagoen bitartean.

Nork: Berdintasun Arloa

Betetze maila jakiteko adierazlea: Berdintasun Planaren urteko ebaluazioa eginda (bai/ez).

2. ekintza: EMAKUNDEk tokiko berdintasun politikak ebaluatzeko egiten duen inkesta elektronikoa betetzea.

Noiz: urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, Plana indarrean dagoen bitartean.

Nork: Berdintasun Arloa

Betetze maila jakiteko adierazlea: EMAKUNDEren inkesta beteta (bai/ez).

G.3. Helburua: berdintasunerako beren beregizko aurrekontuak sustatzea.

1. ekintza: Berdintasun Arloari beren-beregizko aurrekontua ematen jarraitzea Arloak diseinatutako ekintzak burutzeko.

Noiz: urtero

Nork: Udalbatza eta Kontu-hartzaitza.

Betetze maila jakiteko adierazlea: Berdintasun Arloak beren-beregizko aurrekontua edukitzea (bai/ez).

G.4. Helburua: berdintasun eta aniztasunerako komunikazioa sustatzea, kanpora eta barrura begirako komunikazioetako hizkuntza ez sexistaren erabilera azpimarratuz.

1. ekintza: Berdintasun Plana ezagutaraztea, kanpora eta barrura begira.

Noiz: 2013ko bigarren seihilekoa.

Nork: Berdintasun Arloa eta Komunikazio Arloa.

Betetze maila jakiteko adierazlea: Barruan ezagutarazi da Berdintasun Plana (bai/ez). Kanpoan ezagutarazi da Berdintasun Plana (bai/ez).

2. ekintza: Berdintasun Planaren aurrerapausoen gaineko informazioa helaraztea udal langileei aldizka.

Noiz: hiruhilero, Plana indarrean dagoen bitartean.

Nork: Berdintasun Arloa eta Komunikazio Arloa.

Betetze maila jakiteko adierazlea: informazioa bidalita hiruhilero udal langileei (bai/ez).

3. ekintza: emakume eta gizonen arteko berdintasun arloan Udalak antolatutako ekintzez informatzen jarraitzea herritarrei.

Noiz: etengabe.

Nork: Berdintasun Arloa eta Komunikazio Arloa.

Betetze maila jakiteko adierazlea: egindako ekintzei buruzko herritarrentzako informazioa bidalita (bai/ez; erabilitako komunikabideak)

4. ekintza: Berdintasun Planaren aurrerapausoen gaineko informazioa helaraztea komunikabideei aldizka.

Noiz: sei hilero, Plana indarrean dagoen bitartean.

Nork: Berdintasun Arloa eta Komunikazio Arloa.

Betetze maila jakiteko adierazlea: informazioa bidalita sei hilero udal komunikabideei (bai/ez).

5. ekintza: Leioako web gunea genero ikuspegitik berrikustea eta optimizatzeko behar diren aldaketak egitea.

Noiz: 2014.

Nork: Berdintasun Arloa .

Betetze maila jakiteko adierazlea: Web gunea berrikusita (bai/ez).

G.5. Helburua: genero ikuspegia sartzeko udal atalen eguneroko jardunean, genero ikuspuntua erraztuz Udal Aurrekontuetan.

1. ekintza: genero ikuspegia lantzeko batzarrak antolatzea udal atal desberdinekin.

Noiz: hiruhilero, Plana indarrean dagoen bitartean.

Nork: Berdintasun Arloa.

Betetze maila jakiteko adierazlea: Udal atal ezberdinetan batzarrak eginda (bai/ez).

2. ekintza: gida (teoriko-praktikoa) antzerako tresnak sortzea genero ikuspegia udal kudeaketan txertatzeko.

Noiz: 2014 eta 2015

Nork: Berdintasun Arloa.

Betetze maila jakiteko adierazlea: Genero ikuspegia txertatzeko gidak eginda (bai/ez; kop.; mota; parte hartu duten atalak).

3. ekintza: Udalak sortzen duen informazio guztia biltzeko modua aldatzea, barruan egiten diren edo kontratatzen diren ikerketa, inkesta, txosten, estatistika, oroitidazki, azterketa eta abarren sexu araberako bereizketa bermatzeko.

Noiz: hiruhilero, Plana indarrean dagoen bitartean.

Nork: Berdintasun Arloa eta gainerakoak.

Betetze maila jakiteko adierazlea: Sexu arabera bereizitako datuak, estatistikak, eta orokorrean, informazioa (bai/ez).

4. ekintza: emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza saioak antolatzea udal langile eta ordezkari politikoentzat, Udalaren Prestakuntza Planaren barruan, emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeko 17. artikuluan aipatzen den bezala.

Noiz: urtero.

Nork: Berdintasun Arloa eta Giza Baliabideen Atala.

Betetze maila jakiteko adierazlea: udal langileei eskainitiko prestakuntza ekintza kopurua (parte hartu duten gizon eta emakume kopurua).

5. ekintza: genero ikuspegia udal araudian txertatzea aurretik egindako inpaktu txostenen bidez.

Noiz: 2014tik aurrera.

Nork: udaleko atal guztiak.

Betetze maila jakiteko adierazlea: Genero ikuspegia duten udal araudi kopurua. Aurretik egindako inpaktu txosten kopurua.

6. ekintza: genero ikuspegidun klausula sozialak sartzea Udalak bultzatutako zerbitzuen eta programen kontratazioan.

Noiz: 2014tik aurrera.

Nork: udaleko atal guztiak.

Betetze maila jakiteko adierazlea: Klausula sozialak dituzten Udalak bultzatutako zerbitzu eta programa kopurua.

7. ekintza: Liburutegi, gaztegune, ludoteka... bezalako zerbitzuetarako, genero berdintasunari buruzko materiala eskuratzea.

Noiz: 2014tik aurrera.

Nork: Berdintasun Arloa. Kultura eta Gazteria Arloa.

Betetze maila jakiteko adierazlea: urtearen arabera erositako material mota eta kopurua.

G.6. Helburua: Udalak aurrera ateratzen dituen ekintzetan, emakume eta gizonen berdintasunezko parte hartzea sustatzea.

1. ekintza: bere kasuan, Udalak sustatutako parte hartze prozesuetan emakume eta gizonen partaidetza orekatua dagoela berrikusi eta bermatzea (batzordeak, epaimahaiak, lehiaketak, tribunalak...).

Noiz: Plana indarrean dagoen bitartean.

Nork: udaleko atal guztiak.

Betetze maila jakiteko adierazlea: gizon eta emakumeen partaidetza orekatua izan dute parte hartze prozesuak (bai/ez). Zenbat emakume eta gizon dagoen batzordeetan, epaimahaietan...

G.7. Helburua: Udaleko langile politikaren kudeaketan genero ikuspegia sustatzea.

1. ekintza: sexu bietako baten presentzia baxua duten lanpostuak betetzeko ekintza positiboak garatzea, otsailaren 18ko emakume eta gizonen arteko 4/2005 Legeko 20.4 artikulua dioen bezala.

Noiz: Plana indarrean dagoen bitartean.

Nork: Giza Baliabideen Atala

Betetze maila jakiteko adierazlea: sexu bietako baten presentzia baxua duten lanpostuak betetzeko ekintza positibo motak eta kopurua.

2. ekintza: enplegu eskaintzen baldintza pleguetan genero ikuspegia txertatzea.

Noiz: Plana indarrean dagoen bitartean.

Nork: Giza Baliabideen Atala

Betetze maila jakiteko adierazlea: genero ikuspegia barne hartzen duten baldintza pleguen mota eta kopurua.

3. ekintza: langileak kontratatzeko lehiaketetan (edo oposaketetan) berdintasunaren gaia sartzeari ikasgai-zerrendan, otsailaren 18ko emakume eta gizonen arteko 4/2005 Legeko 17.4 artikulua dion bezala.

Noiz: Plana indarrean dagoen bitartean.

Nork: Giza Baliabideen Atala

Betetze maila jakiteko adierazlea: berdintasuna barne hartzen duten oposaketetako gai zerrenda motak eta kopurua.

4. ekintza: gaur eguneko kontziliazio politika berrikustea neurri beharrezkoenak identifikatzeko.

Noiz: 2015

Nork: Giza Baliabideen Atala

Betetze maila jakiteko adierazlea: kontziliazio politika berrikusita (bai/ez); identifikatutako neurri beharrezkoen tipologia.

5. ekintza: kontziliaziorako neurriak edo erabakia komunikatu eta zabaltzea.

Noiz: 2015

Nork: Giza Baliabideen Atala

Betetze maila jakiteko adierazlea: kontziliazio neurriak hedatuta (bai/ez)

6. ekintza: kontziliazio neurrien erabilera erregistratu eta ebaluatzea urtero, banakako negoziazioak ekiditeko (neurririk eskatuena, neurriak nork eskatzen dituen, noiz, etab.).

Noiz: 2015

Nork: Giza Baliabideen Atala

Betetze maila jakiteko adierazlea: kontziliazio neurriak erregistratuta eta ebaluatuta (bai/ez)

7. ekintza: jazarpen sexual edo sexu jazarpenaren aurreko prebentzio eta jardueraren protokoloa diseinatzea.

Noiz: 2014

Nork: Giza Baliabideen Atala

Betetze maila jakiteko adierazlea: jazarpen sexual edo sexu jazarpenaren aurreko protokoloa eginda (bai/ez)

Emakumean ahalduntzea eta balioak aldatzea

Programa: autonomia pertsonala eta balioak aldatzea

E.1. Helburua: autonomia eta genero kontzientzia hartzea garatzen erraztea.

1. ekintza: pobrezia ekonomikoko egoeran eta eskusio arriskuan dauden emakumeei zuzendutako lanerako prestakuntza programetan, ahalduntzea hobetzeko ekintza bereziak sustatzea.

Noiz: 2014tik aurrera.

Nork: Gizarte Ekintza Atala eta Behargintza.

Betetze maila jakiteko adierazlea: ahalduntzearekin lotuta dauden gaiak jorratzen dituzten emakumeei zuzendutako lanerako programak (bai/ez). Prestakuntza programetan parte hartu duen emakume kopurua.

2. ekintza: Leioako adin guztietako emakumeei zuzendutako ahalduntze tailerrak eta programak sustatzen jarraitzea.

Noiz: 2013tik aurrera.

Nork: Berdintasun Arloa, Leioako emakumeen elkarteak.

Betetze maila jakiteko adierazlea: Leioako emakumeei zuzendutako ahalduntze tailerrak eginda (bai/ez; kop. eta mota; zenbat emakumek parte hartu duten; balorazioak).

3. ekintza: Leioan, dibertsitate funtzionala duten neskato eta emakumeen ahalduntzea hobetzeari begirako ekintzak abian jartzea.

Noiz: 2014tik aurrera.

Nork: Berdintasun Arloa.

Betetze maila jakiteko adierazlea: dibertsitate funtzionala duten neskato eta emakumeen ahalduntzea hobetzeari begirako ekintzak antolatuta (bai/ez; kop. eta mota; zenbat emakumek parte hartu duten; balorazioak).

4. ekintza: nagusien etxeetako emakumeei zuzendutako ahalduntze ekintzak egitea.

Noiz: 2014tik aurrera.

Nork: Berdintasun Arloa eta Gizarte Ekintza.

Betetze maila jakiteko adierazlea: nagusien etxeetako emakumeei zuzendutako ahalduntze tailerrak antolatuta (bai/ez; kop. eta mota; zenbat emakumek parte hartu duten; balorazioak).

5. ekintza- Leioako adineko emakumeek genero ikuspegitik duten errealitate eta beharriaz buruzko azterketa egitea.

Noiz: 2015

Nork: Berdintasun Arloa eta Gizarte Ekintza.

Betetze maila jakiteko adierazlea: Adineko emakumeen errealitate eta beharriaz buruzko azterketa eginda (bai/ez); hobetzeko proposamen kopurua eta mota.

E.2. Helburua: balio aldaketa sustatzea, sexuaren arabeko rol sozialak eta estereotipoak ezabatuz.

1. ekintza: jarduera hezkideak antolatzea Leioako guraso eta umeentzat.

Noiz: 2014tik aurrera.

Nork: Berdintasun Arloa, Hezkuntza Arloa eta Eskolak.

Betetze maila jakiteko adierazlea: jarduera hezkideak antolatuta (bai/ez), partaide kopurua sexu eta adinaren arabera; balorazioak.

2. ekintza: bokazio orientazio ez sexista sustatzeko jarduerak antolatzea.

Noiz: 2014tik aurrera.

Nork: Berdintasun Arloa, Hezkuntza Arloa eta Eskolak.

Betetze maila jakiteko adierazlea: bokazio orientazio ez sexista sustatzeko jarduerak antolatuta (bai/ez), partaide kopurua sexu eta adinaren arabera; balorazioak.

3. ekintza: hauek bezalako data klabeetan, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekin lotutako beste data klabe batzuetan, sentsibilizazio kanpainak antolatzen jarraitzea: martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna; edo azaroak 25, Emakumeen Aurkako Indarkeria ezabatzeko Borrokaren Nazioarteko Eguna.

Noiz: Plana indarrean dagoen bitartean.

Nork: Berdintasun Arloa.

Betetze maila jakiteko adierazlea: berdintasunarekin lotutako data klabeetan antolatutako sentsibilizazio kanpaina kopurua; partaide kopurua sexu eta adinaren arabera; balorazioak.

4. ekintza: hezkuntza zentro, familia, gaztegune eta abarrei lan tresnak eta baliabideak ematea gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzeko.

Noiz: Plana indarrean dagoen bitartean.

Nork: Berdintasun Arloa, Kultura eta Gazteria Arloa, Hezkuntza eta Euskara arloa.

Betetze maila jakiteko adierazlea: hezkuntza eragileei emandako berdintasuna bultzatzeko tresna eta baliabide kop. (balorazioak).

5. ekintza: hezkuntza eragile desberdinen arteko koordinazioa hezkidetzak sustatzeko.

Noiz: 2014tik aurrera.

Nork: Berdintasun Arloa, Kultura eta Gazteria Arloa, Hezkuntza eta Euskara arloa.

Betetze maila jakiteko adierazlea: koordinatu da (bai/ez; batzar/kontaktu kop.; erabakiak)

6. ekintza: hezkuntza zentroekin kolaboratzea genero ikuspegia barne hartzen duten bizikidetza planak lantzean.

Noiz: 2014tik aurrera.

Nork: Berdintasun Arloa eta Hezkuntza.

Betetze maila jakiteko adierazlea: hezkuntza zentroek genero ikuspegia barne hartzen duten bizikidetza planak jorra dezaten kolaboratzeko egin diren jarduera mota eta kopurua.

7. ekintza: Drogamenpekotasunen Prebentzioarekin lotutako ekintzetan genero ikuspegia txertatzea.

Noiz: 2014tik aurrera.

Nork: Berdintasun Arloa, Gizarte Ekintza eta Hezkuntza.

Betetze maila jakiteko adierazlea: Drogamenpekotasunen Prebentzioarekin lotutako gaietan, genero ikuspegia barne hartzen duten jarduera kopurua eta mota.

8. ekintza: Leioako gazteen artean, berdintasunaren gaineko ezagutza, balio eta pertzepzioa aztertzeke ikerketa egitea.

Noiz: 2014.

Nork: Berdintasun Arloa eta Hezkuntza; Kultura eta Gazteria Arloa.

Betetze maila jakiteko adierazlea: maiatzaren 28aren inguruan antolatutako jarduera kopurua eta mota; partaide kopurua; balorazioak.

